

A. LARTZABALEN 10. HERIOTZ-URTEBETETZEAN

- HITZALDIA -

Gaia: "A. Lartzabalen antzerkia eta beronen eragina euskal antzerki gintzan"

Hizlariak: Patri URKIZU eta Piarres XARRITTON Jn.

Eguna: 1998 - 1 - 15

P. URKIZU: A. Lartzabalez zer esan? Nik hitza P. Xarrittoni utziko diot. Dena den, eta alde zaurretik adierazi behar dizuet, ohore handiz eta lehen aldia dela, horrela nagoela ezker-eskuin mahain batean P. Xarrittonekin eta berori buruz bi hitz gutxienez esatea dagokit.

Ez du aurkezpenik behar P. Xarrittonek. Ikusten duzue jada ilea urdindua, betaurreko horien atzen begi erne, arrai,... eta bere bizkar gainean 55-56 urte gauzak publikatzen eta argitaratzen.

1943an jadanik okupazio garaietan, AINTZINA aldizkaria berak zuzentzen zuen beste izen batekin noski, hala nola; P. Aulatei (?); P.X.; Federalista; Sudurluze; e.a.,... Nik uste dut, Iparraldeko gizonak eta Iparraldeko historia hobekien ezagutzen duena berauxe dela.

Eta jakina den bezala, filologo serioa, Erroman ikasia, gero Erromaz aparte, Pariseko CNRSen aritua eta P. Broussain-en lanei buruzko tesiaren egilea eta P. Broussainek bere lanak Euskal Herrian egin zituenek, benetan lan ederra. Baita ere baditu hainbat eta hainbat Etxepare, Mendiage, Adema, Oxobi eta Lafitte-ri buruz eginak. Guzti hauek inork baino hobeto ezagutzen dituelarik. Lan eskerga egin du hauek aztertzen; liburutegietako zoko-bazterretan eta eskura ezinezko aldizkarietan sakanatuak eta galduak zeudenak gureganatzen, alegia. Eta gaur egun hain erraz eskura baditzakegu P. Xarrittoni esker izan da.

Itzultzailea ere bada eta ez nolanahikoa, T. Moreauren UTOPIA eta Vitoriaren indioei buruzko notiziak eta iritziak berak itzuliak baitira.

Baina, aurkezpentxo honen ondoren eta tokamenduz, P. Lartzabali buruz hitzegitea dagokigunez bera da pertsonarik egokiena horretarako baina hala eta guztiz ere, neronek ere, neure hondar-aletxoak aurkeztu nahirik, Lartzabali buruz mintzatzerako-

an, ikuspuntu askotatik mintza liteke; Lartzabal gizona, Lartzabal antzerki-egilea. e.a.,...

Beraz, Euskal Herriko historian sartzen gara bete-betean, XX. mendeko historia, alegia. Erabat, konprometitua bere herriarekin.

Guztiok dakigu ordea, Telebistak zenolako eragina duen, baina S. Aranak zioenez, "euskal ideien eta euskal nortasunaren zabalkunderako", bazirela zenbait bidea, hala nola: Prentsa lehenik, gero **Antzerkia** eta **Liburua** azkenik.

Beraz, antzinan jende gutxi irakurtzen zuenean, Antzerkiak betetzen zuela "ideien zabalkunderako" funtzio hori nabarmena da. Eta ildo horretatik, Antzerkia izan dela euskal Literaturan generorik aberatsena duela gutxi arte ere esan daiteke.

Hortaz, ez S. Aranak bakarrik, baizik eta beste askok ere hitz egin du, halere Antzerkia gero eta zokorago ari dela geratzen eta beste komunikabide batzuk gailentzen. Duela 60-80 urte), eta Lezoko alkate nintzela (1981 edo 82an) Endaiako elizan, euskal errefuxiatuekin gose greban zegoela hantxe ezagutu nuela. Beraz, gizon konprometitua Euskal Herriarekin eta batez ere, egoera zailetan izan diren euskaldunekin. Adib., ENBATA eta ANAL-ARTEAko sortzaileetakoa izan zen berau, gizon inportaneenetakoa aldi hartan.

Azkainen jaioa eta Ustaritzeko Seminario Ttikian eta Baionan 1939an apeztua. Gero gerlan 1939tik 1945era ibilia, expetxeratua, eta Alemanian, Polonian eta Txekoslovakian zehar ibilia eta gerla bukatu eta gero Hazparne eta batez ere Zokoan bizitua; hemen aritu zelarik geroztik lanean.

Eta hor bizitasun polita osatu zuten une hartan euskal teatroaren munduan Telesforo Monzonek, Daniel Landartek eta Lartzabalek berak. Eta gainera, bada hiruron argazki bat oso polita.

Eta zer esan gehiago? Bere merituak euskararen aldetik bada, ez ditut aipatuko, bakar-bakarrik esan, Euskaltzaindiak 1960an euskaltzain izendatu zuela.

Bere teatroa era askotakoa da, badira komikoak, irigarriak, asko baita ere dramak eta tragediak. Eta nik uste dut horietako ba aipatu beharko bagenu MATALAZ izango litzatekeela; drama istorikoa, XVII. mendekoa, apaiz iraultzailea eta azkenean zintzilikatua izan zen haren bizitza, hain zuzen.

P. Lartzabal 1988an hil zen bere hilarrian honakoxe hau ipini zuten:

"Herriar leial,
erretor apal,
idazle zabal,
gogotik ez gal
Piarres Lartzabal"

Eta besterik gabe, nik baino xehetasun gehiago eta sakontasun handiagoz emango digula P. Lartzabali buruzko bizitza-zertzeladak gure Piarres Xarritonek. Eta gero zerbait galdetu nahi baduzue, hemen egongo gara zuei erantzuteko prest.

Besterik gabe, Piarres zurea da hitza.

* * * * *

Piarres XARRITON

Berehala sartuko naiz Lartzablez mintzatzera, nitaz sobera esan baituzu.

Lartzabal zuk ezagutu duzu eta nik luzazago ezagutu dut, zeren eta ni zu baino zaharra goa naizelako alde batetik, eta bigarrenetik, Lartzabal ezagutu baitut aski gazte zelarik oraino, bera ere.

Noiz ezagutu dut? Hazparnerat etorri delarik. Ez berehala egia erran, zeren eta erran duzun bezala, 1939an zen apezte eta berehala Hazparneratio izendatu zuten, baina 1939 ere uztailen apezte baldin bazen, gerla piztu zen dakizuen bezala irailen, alemanen kontrako gerla, eta gerlara joan behar izan zuen, Eta nik orduan ez nuen ezagutu bikario berria, egun haietan ez dakit non nintzen eta.

Gero joan zen erran dudana bezala soldado gerlarat, eta gero preso Alemaniara, eta gero Suizan gaindi itzuli zen Frantziarat, zeren eta libratu baitzuen Suizako Gurutze Gorriak bera eritu zelakoz, han gaixotu bera erizain zelarik eta horrela libratu zen presondegitik eta itzuli zen eta 1942an edo, jin zen Hazparnerat eta orduan nuen ezagutu, eta ezagutu ongi.

Nihaurt orduan hogeitaz urte nituen eta berak hogeitaz bost/hogeitaz sei edo gehixeago; dena dela, nola ezagutu nuen? Bada, gure etxean baserritarrak gira eta esnea saltzen genuen eta heltzen genuen tradizioz: Umetatik nintzen ibiltzen bikarioaren etxean esnearekin egunero; batzuetan eskolara joatien nintzelarik eta behartuak baikinauden apezaren etxera joaiten.

Bestalde, gure aitak txerriak hiltzen zituen ere neguan, eta bikarioaren txerria ere hiltzen zuen. Beraz Lartzabalen etxean zehbilen okasione horretan, eta horrela ezagutu zituen haren aita eta ama, familia eta berezik i "matanta" (amaren ahizpa bat) berekin zen eta berak ere ezagutu gintuen gu, zeren eta gure etxean ibiltzen baitziren apezak; asko afaltzen eta ohituak ziren, familian bagenituelako apezak, amaren osaba apezak baitzen eta aitaren lehengusuak ere bi bederen baziren apezak eta beraz, apez-etxe zen gure etxea, eta lasaiki etortzen ziren bikarioak aintzinetik ere, heldu zen Lartzabal ere afaltzera.

Gainera, banituen anai-arrebak ni baino gazteagoak; ni zaharragoa nintzen eta eskoletan ninbilen eta beste arreba bat ere bazen eskoletan zebilena, baina beste bat bazen hamabi urtetan lantegian sartua zena; beste anaia hamaika urtetan aitarekin ari zena baserrian lanean; eta gero baziren oraino beste bi ttipiagoak. Eta bikarioak haiekin, gazteekin, zuen lan egin behar.

Eta hola hasi nintzen ezagutzen gure Lartzabal nor zen. Esan nahi baita, gazteekin horrela zebilela. Ikusi bainuen etxen nola zebilen. Eta ikusi nuen, nolako asmoa zuen gazteen formazioaz.

Hasi zen bikario berria, hasi zen arratsetan, astean bizpahiru bider biltzen nekazari edo baserritar-seme gazteak, formazioa emateko egiten ziren arratsetako eskolak. Orduan ez baitzen eskolarik baserritarrentzat, dirudunentzat salbu edota, apeztu behar zutenentzat; baina besteek ez zuten eskolarik; hamaika urtetan lantegirat neskak edo mutilak edota, bestela baserrian aitaren lagun.

Eta orduan hasi zen hiru mutikorekin eta haietarik gazteen a nire anaia Xalbat, zen, beste bat bazen (Abadie) nire adinekoa eta beste bat (Besainboure); hiru mutilekin hasi zela ikusi dut, lekuko, formazioa egiten: frantsesa, matematikak, dotrina, dotrina soziala, (elizarena ere bai), ekonomia (piska bat) eta euskaraz. Ez literatura, baina bai euskaraz irakurtzen, euskaraz idazten eta euskaraz hitzegiten ere, zeren talde hori gero haziz joan baitzen.

Hazparneko gazteak ez ziren hiru bakarrik, behar bada bizpahiru urtez horrela izango zen hiru horiekin hasi zelako. Gero Hazparnetik joan zelarik handik bederatzirteren buruan bazituen hogeitamar/berrogei ikasle, eta ez aste barnean bakarrik Hazparnekoak, baina merkatu-egunetan (hamabostero merkatua baitzen) biltzen zituen auzo-herrietako gazteak eta haieri kurtsoak ematen zien, *(eta gogoan dut gerostik familian sartu baita gaur Monrealen bizi den horretaz Lartzabalek berak esanik "A!, hori ukan diat izan dudan ikasle hoberenetarik bat, zorigaitzez joan behar izan zian hemeretzi urtetan Ameriketara, egurretan lanean aritzerat")*. Eta lehengusin batekin ezkondua den beste batez ere *(A! ze mutiko argia zen Piarres hori!)*.

Etxean ere nire anaiarentzat egia da hark irakatsi ziola piska bat eskolatzen eta publikoan hitz egiten... geroztik ezkondu zelarik, kooperatibetan eta lan egin du, Sindikatetan,... Lartzabalek baserritarrentzat egiten zuena, langile-umeentzat ere bai; berdin formatu zituen. Eta "Gazte Katoliko langileen taldeak" deiturikoetatik atera zituen gero Sindikatuetakako buru izango zirenak. Lartzabalen lana zen hori. Baina esan behar da Antzerkia ere hartzen zuela hain zuzen formazio bidetzat, gazte horien formatzeko, publikoan agertzeko eta hitzegiteko eta horretarako ez duzu Antzerkia bezalako biderik.

Baina hasieran ideologia gutti. Jostailu bezala hartzen zuen antzerkia, formazio-gailu, izpirituarentzat bakarrik, baina formazio osoa emateko moduan.

Eta emeki-emeki gero aberastu zuen bere antzerki hori. Ttikitatik bazuen antzerki-rako "ekarri". Hamalau urtetan jadanik hasia zen antzerki ttiki batzuek idazten IRRI ETA NIGAR e.a., ... Baina gero soldaduzkan ere egin zuen, Seminarioara joan zelarik ere egin zuen Lartzabalek antzerki hori antzokietan, frantsesezkoetan bistan da. Eta Hazparnen ari zelarik ere, euskara eta frantsesa nahasten zituen berdin-berdin bere antzerkietan; ez zuen propio hizkuntzaren kezka nagusi; gramatikaren arregurarik ez zuen baitaezpada, bakarrik denborapasa.

Eta gero ikusi zuen hor bazela bide bat ideien, bere ideien sartzeko, eta hor hasi zen bere idein sartzen eta ideia horiek ziren lehenik sozialak, ez aberriaru buruzkoak ez zen arazorik; euskalduna zen bai, baina ez du Lartzabalek hasieran senti izan, nahi baduzu, aberri-mina. Hasieran izatekoz ere, sentitu du gehiago, askoz ere gehiago sozial-mina, sozial arrangura, ttikien eta handien arteko gatazka hori bizi izan baitu bere bizian ttiki-ttikitatik.

Esan dizuet sortu zela "Ixabelenean", eta gero "Mitxelen"rat pasa zela. Lehen etxea, maizter etxea zen, hor muga-mugan, eroria da egun, eta bigarrena hurruxeago zen, oraino zutik da. Baina hor ere maizter bezala bizi zen familia baina mixeria gorrian, eta egia esateko, kontrabanda egiten zuten beharrarekin, hortarik diru apur bat ekartzan eta berak ere, Lartzabalek esaten du bere "memorietan" nola parte hartu duen kontrabanda horretan eta oroitzapen gogorrak ere baditu muga horrenak. Irri egiten du batzuetan, MUGARI TIRO antzerkia har ezazue eta irringarri da, baina hor atzetik bada barne-mina, zeren Lartzabalek bazituen bi anaia eta bi arreba eta anaia horiek biak Frantziak hil zizkion nolazpait esateko.

(Bat, Antton, hil zen soldaduzkara joan eta soldadu zelarik, zaldi batek jo zuela eta hilda ekarri zuten etxera. Eta ehorzketa egin zutenean ez zuten utzi hil-kutxa irekitzerat, eta familiak dio, amak ez zuela semearen gopurtz hila ikusi ahal izan zeren ikusi balute, ikusiko baitzuten nola hila zen eta beraz, beharko baitzioten pentsione bat eman dirua eman beharko baitzion ejertzitoak eta hori ez emateagatik. Egia edo gezurra familiak hori sinetsi du. Eta bestea aldiz, ezteiliar zela bere herrian, Azkainen, lagun baten lagun, joan zen Bidasoako Berarat, bere ezteietako jantziak merkeago zirelako egitea sastrearen etxera saiatzera (espos-lagun baitzen), eta etxerakoan, frantsesek tiroz garbitu gizona).

Beraz, horiek orok. Eta gero esn behar da bere eskolentzat eta diru piska bat behar baitzuen, (dirurik ez baitzen etxean), zer egiten zuen oporretan? Donibane Lohizuneko ostatuetan lan egiten zuen, zerbitzen. Arreba familia handietan neskame ikusia zuen, hor zen jaime de Borbon, haran ederrean, bere segidarekin..., eta kontatzen du bere oroitzapenetan (anartetik esateko, biltzen ari bainaiz berak eskaturik hiltzean, utzi zidan lan hori egiteko, beste lagun batzuekin; R. Idaiart, Landart, Luberriaga (Azkaineko alkatea,...) baina nire gain da lana eta haren obra biltzen ari naiz, larriena bederen, zeren bildu ditut antzerkiak (4 tomo), ipuinak eta istorio zenbait (tomo 1), etnografia solas eta hitzaldi zenbait (honako honetan) eta berak beste hitzaldi batzuk (elizakoak bazituen publikatuak eta orain bospasei kuadernotan badira sakabana-tuak bere oroitzapenak.

Eta hor kontatzen du nola ezagutzen zuen Jaime de Borbon hori Azkainen, bera gazte zelarik eta oraino Espainiako gerla hasteko baitzen. Jaimek apaizarekin konfiantza handia zuenez eta apez hori eskuinekoa baitzen "Action française" horkoa, eta apez horrek esan omen zion Lartzabali: Behar diat sekretu bat eman. Hor badiat problema bat. Jakin diat, Jaime de Borbon hori ari dela armak erosten Italian, erreboluzioa sortzeko Espainian, gerla egiteko, eta esan zidak hori ongi zenentz, bazuenentz eskubiderik kristau bezala hori egiteko.

Eta nik ez zekiat zer egin eta Apezpikuari behar zioat galdetu. Eta Baionako Apezpikuari geldetu eta honek erantzun omen zion: Ez zaitez sar horretan! Ez sar!, ez sar!. Lartzabal ez zen ados apezpikuak emandako erantzunarekin eta garbi ikusi zuen justizia eta karitatearen arteko problema zela. Nola elkartu justizia eta karitatea? Maitasuna eta zuzentasuna? Hori da gizon bakoitzak bere baitan duen problema latza. Eta hori sentitu zuen lehen-lehenik. Ezen ikusten zuen zer ziren hemen gaindiko bidegabekeriak, ttikien eta handien arteko haustura hori, (orain gure soziologo handi horiek esaten duten **fracture soziale**) bizi izan zuen Lartzabalek eta horren kontra jazarri behar da, nola? zer bidetaz? Gazteer zuzentasun-bidea erakutsiz.

Bai baina badaki hori zer kosta zaion. Zeren esan behar da Lartzabalek ukán ditula miresle handiak Hazparnen berean, baina etsai amorratuak ere bai: bereziki, Hazparneko jauntxoak, lantegietako nagusi horiek. Hamalau lantegi (1.400 langile urte haietan) baziren urte haietan Lartzabal han zelarik, eta adiskide gutti izan du hor, etsaiak bai. Gaztigatu nahi izan dutenak ere, beraz, Lartzabalek hori izan du lehen problema.

Eta gero, sortu zaio bere aberri-mina. Beretzat aberria Frantzia izan da hastean, gaztetan hori ikasi zuen eta erran nezake, frantses nazionalismoa irakatsi ziola herriko apezak asko maite baitzuen De Bidart horrek; "Action Française" horretan sartua zen leporaino, frantses katoliko eta apez asko bezala.

Horren kontra Erromako Aita Sainduak erabaki gogorak hartu zituen baina ez da horrela, Aita Sainduaren erabaki batek ez ditu izpirituak aldatzen. Hori dela eta, Espainiako gerla honetan erran behar da eskuinaren alerdia hartu zuela, berak karlistena, hots, nafarrena eta Euskal Herriko apez ainitzena ere, nahiz eta kanpoan Euskal Herriko apezak fama duten Francoren kontra zirela; bai, badakizue nik baino hobe-kiago horretaz asko, bazela denetarik.

Eta Lartzabalek ere hasieran, ezagutu zituen gero Baionan apezgai-errefuxiatuak Iparraldean; Irungo Pasionistak ere joan ziren Azkainera, beren etxea (Errotaberri) han erosi zuten eta horiek oro ezagutu ditu; gero Frantziako gerlan sartu zen eta egin ere egin zuen gerla hori, eta gero emeki-emeki, ikusi zuen hor bazela Frantzia, Espainia, Eskual Herria... baina norat ari gira? Zer dio zor Frantziari Euskal Herriak?

Eta horrela, askok ikusi dute Lartzabal **San Kruz** berri bat bezala, Espainiaren eta Frantziaren kontra bide guziak onartzen zituena Euskal Herria salbatzeagatik. Hola dira gauzak egiazki? Nik ez dakit zenbatetaraino.

Dena dela, une batean Zokoa baitzen ETAKoen eliza berezia eta ez baita berehala pasatu lehenagoko egoeratik gaurko egoerara. Elizaz ez du gaur menturaz ardura askorik; ez kristautasunaz, ez dotrinaz, baina hasieran bazuen. Eta Fidel Castrok Sierra Maestran Iruretagoiena bazuen bere kapeilaua, ETAKoek ere bazituzten beren apezak eta Lartzabal izan da horietarik. Eta Lartzabalek publikatu zituelarik Zokoan ETAz dakigunaz publikatu ditu predikuak liburu berezi batean bera bizi zelarik eta liburu hori bidali zelarik bi adiskideri, atxeman ditut Lartzabalen paperetan bi apez horien erantzunak eta esker onak Lartzabali idatziak, llabur, orrialde bana bakoitzak; bata, Aita Iratzeder, Belokeko abadearen erantzuna da eta bestea, Aita Lafitterena.

Dena dela, une batean Zokoa baitzen ETAKoen eliza berezia eta ez baita berehala pasatu lehengoko egoeratik gaurko egoerara. Elizaz ez du gaur menturaz ardura askorik; ez kristautasunaz, ez dotrinaz, baina hasieran bazuen. Eta Fidel Castrok Sierra Maestran Iruretagoia bazuen bere kapeilaua, ETAKoek ere bazituzten bere apezak eta Lartzabal izan da horietarik.

Eta Lartzabalek Zokoan ETAz dakigunaz publikatu ditu predikuak liburu berezi batean bera bizi zelarik eta liburu hori bidali zelarik bi adiskideri, atxeman ditut Lartzabalen paperetan bi apez horien erantzunak eta esker onak Lartzabali idatziak, llabur, orrialde bana bakoitzak; bata, Aita Iratzeder, Belokeko abadearen erantzuna da eta bestea, Aita Lafitterena, Piarres Lartzabalen irakaslearena da. Eta gonbaratzen badituzue zinez argi dira biek.

Aita Iratzederrek dio: *Adiskidea goizean jaso dut zuk bidali didazun liburua eta goiz honetako ene irakurketa izpiritualetan, gai izpirituala liburu horrekin egin dut, iduritzen zait dohain berezia baduzula penetan diren euskaldun askoren ondoan izaiteko eta zure apez-lekukotasuna emaitako. Zoaz bide beretik, zurekin nago, Erresebarririk gabe. Sinatu, A. Iratzeder.*

A. Lafittek: *Adiskidea, Baionan izan naiz eta atxeman dut bulegoan zure liburua, eskertzen zaitut, baina erran behar dautzut ez garela behar bada arras, osoki, bide beretan zeren alemanen denboran ginabiltzalarik hor, batzuek beren baitarik justizia beregain hartu nahi zutelarik, etsaiekilan zebiltzan batzuen garbitzeko, badakizu ez dudala behin ere gauza hori onartu. Dena dela, bakoitza gure ikuspegiarekin gauden beti, elgarrekin bat.*

Ikusten duzue beraz, Lartzabalen problema zenbait diskutigarri direla eta, diskutitu direla bere adiskiderik hoberen artean ere. Baina da dudarik pausatu bederen dituela problema, beste batzuek ez baitituzte ikusi nahi ere, edo, ez ikusiarena egiten baitute. Hori da problema ene ustez. Hori da Lartzabalen grazia berezia eta handitasuna ene ustez. Eta horren lekuko izanen dira agertuko diren OROITZAPENAK, irakurri nahi dituenarentzat. Askok ikasteko izanen dugu.

Mende hau bizi izan dugunok (gurea hau joana da!) eta ondotik jinen direnek, nahi-ko gbadituzte irakurtu, zorigaitzez gertatzen da eskuaraz idatzia edo eskuaraz errana, ez balitz bezala dela, zorigaitzez, istorian zehar ohartu naiz gure istorialari askok erda-

rak baizik ez dakizkitela Iparraldean segurik, eta hegoaldean ere, uste dut istorialari askok nahiago dutela beren historia egin, eskuaraz deus esan eta idatzi ez balitz bezala, seinale oraino badugula non egin eskualdunok gure historia, gure eskutan har dezagun eta hortan hasi bezala bukatzeko, (gero zuen galderak erantzuteko prest nago!), zeren bistan da mintzatu naizela Hazparnen ikusi dudana Lartzabal horretaz, erran nezakeen bestela, Zokoan zer izan den ere, badea hortaz asko erraiteko, bada zeren Lartzabal, 1915an joan zen Hazparnetik, 1939an jin eta 11/12urte Hazparnen egin ditu, eman dezagun 30urtetik 40 urtera, baina gero 40urtetik 70era Zokoan izan da, Zokoako apeza izan da Lartzabal. Eta hor egin du dena. Ez baitzen hor ez elizarik ez apez-etxerik, eliza eta apez-etxea egin ditu.

Sosik ez zuelarik denak egin ditu bere eskuz, bere indarrez, bere karrez, bere lanez eta bere minez egin ditu denak. Eta denak utzi, 1979an osasunak hala galdeturik, azkenean hil da handik 9 urteren buruan dakizuen bezala (aurten gogoratzen ari garenez), baina erran nuen, orain bezala, lagungarri dira eskuararentzat bereziki eta patrik batek egiten dituen lanak ikusten dugularik hor bildu dituen eta orain publikatu duen lan hori, Intxaurrandietak aireak bilduz eta..., hori ene ustez izugarrizko lana da. Nik nire aldetik piska bat lagundu ditut, baina ez nahi bezanbat, presaka egin ditut egia erran, eta ez dut denborarik izan joaiteko, Hendaian eta Ziburun eta hiri handi horietan behar ziren paperak miazterat. Herri txikiak hartu ditut errazago baitzen harat joaitea. Baina horiek beharrezko dira nahi badugu jakin zer izan den Euskal Herri honen bizia.

Egunotan atera dute ene sorterrian, Hazparnen, "Regarde sur Hazparne (frantsesez, bistan da), gauza asko aipatzen dira; artxiboetako lanean ari diren horiek, artxibo horiek denak frantsesez dira, baina eskual herria denik edota, euskaraz bizi den herria izan denik Hazparne, inon ez da ageri, izan ez balire bezala Hazparnen hoinbeste bertsulari, izan direnak eta Kategoriakoak zonbeit, ADEMA bat adib., Hazparnen bikario zelarik eginiko bertsuak; edota, OTXALDE ere, horietaz tutik ez dute aipatzen, izan direnik ere. (Fran Gijon?) aipatzen digute hori bai, berak zortez ondoriotasun bat ukan zuelakoz fraile bati esker, Hazparnen hamalau etxalde ukan zituelakoz, eta denak jan zituelakoz 1940-40 bitarte horietan, Hazparnen karrika nagusia eman diote; baina HIRIART-URRUTI "EUSKALDUNAren sortzailea izan denik ere ez daki inork eta ez du kalerik Hazparnen. BROUSSAIN-ena badugu zeren eta nik egin baitut tesia horretaz, baina beste batek egin zezakeen. Dena den, idazle ederrak hazpandarrak..., eta tutiz ez. Kultura gabeak gira oraino, anitz herritan, anitz euskal herritan, herri gizonak. Herri gizonok ez dute kulturarik, beren herria ez dute ezagutzen, ukatua dutelarik. Hori da problema eta Lartzabal horren kontra gogorra izan da eta hortakotz, asko zor dio Euskal Herriak.

Mila esker Piarres.

Patri Urkizu.- Ikusi duzue dugun hizlaririk ederrenetakoa dela gure Xarritton eta noski, gure Herria izan dela historiarik gabeko Herria; herri euskalduna esan nahi dut, zeren beti erdaldunek egin izan baitute Historia. Hor daukagu Hegoaldean adib., eske-

rrak Antonio Zabalar ia 200 liburu argitaratuak euskal bertsolariez, euskaraz egiten zuen herri xume horren adierazgarri, berak antolatutako biblioteca hori. Eta iparraldean gauza berdintsua esan dezakegu, beste hainbat eta hainbat egile eta idazle badirela eta eskerrak bai Lafitteri eta baita Xarritoni, neroni ere saiatu naiz zertxobait eta....

P. Xarritton.- Asko zor diogu Patriri eta Zabalar ere. Eman dezagun Xabaldor adib., ez balu bildu A. Zabalak, non ginen? Eta Xabaldor norbait bada!

Patri Urkizu.- Mila esker. Orain ospatzen dugu preseki hamar urte Lartzabal hil zela, urtarrilaren 12an.

Dena dela, ni oroitzen naiz T. Monzonek esan zuela Lartzabali buruz "euskal Lope de Vega zela zeren eta izugarrizko erraztasuna zeukala teatroa egiteko. Ahalmen eta doai izugarriak zituen eta esate baterako, umorea ez zitzaion sekula falta. Behin galdera batzuk egin zitzaizkiolarik ANTZERKI aldizkarirako eta bere testuak publikatzen genituela eta; Antzerkia zer da? Hona zer erantzun zuen: Antzerkia? Antzara kia? Hasieran jendeak pentsatzen zuela komediak zirela (Lezon ere horrela deitzen zitzaion), jendea entretenitzeko zirela.

Antzerkia hitza berarekin egin zuen bezala, eta bere umore punttua jartzen zuen. Eta gero, irudimena izugarri bizia zuen, eta zuk esan bezala "ez zela garbizale horietako, noski ezetz! Zeren herriaren hizkera jasotzen saiatzen baitzen, eta muga eta gerla garaiko historiak zirenean eta, frantses esaldi askos sartzen zituen eta alemanen hitzak ere bai,... eta orduan, nik uste dut hor ikusi behar dela bada, irudimen handiko gizon bat, justiziarekin eta karitatearekin konprometituako gizon bat, baina baita ere literatura gizon ahortzi ezina dela. XX. Mendeko euskal antzerkigilerik hoberentsuenetakoa, dudarik gabe, eta bizienetakoa dela esango nuke nik, eta ahalegin handia egin zuena historia hori berreskuratzen.

Nola? Ez biografia eta horrelako istorio sakonekin, baizik eta herriarengana iristeko modu erraz eta sinple baten bitartez, hau da, antzerkiaren bitartez, historia, euskal historia agertzen ez dena liburuetan, oso modu atseginean aurkeztu izan duela beti bere obra ezagun guzti horiek. Baditu obra benetan ederrak eta merezi dutenak aurten antzez taldeek eman ditzaten.

Galdera: (Jendeartetik luzaturiko galdera). *Badakizue zenbat idazlan edo antzerki idatziak dituen Lartzabalek?*

P. Urkizu.- Bada, ehunen bat obra baditu idatziak, baina batzuek galduak daude.

P. Xarritton.- Hartzen badituzu irratiz eman zituzten esketxak eta, zeren eta udan ezarri baitzuten irratia bat frantsesek miarritzeko Kasinoan, turistentzat emanaldiak emaiten zituen, Parisetik dena ez egiteko, ordurarteko irratia denak Parisetik edota Bordaletik egiten baitziren. Eta turistak geroz eta gehiago heldu zirelarik., Miarritzeko kasinoan ezarri zuten udan funtzionatzen zuen irratia bat frantsesek Frantzina, nazionala, "Radio Euskadi izenekoa.

Eta horien artean gertatu zen bat "Garreta izenekoa, Donibane Lohizuneko irrati-saltzaile bat, Etxezarreta azkaindarra (eta oraino bizi dena) eta Lartzabalen adiskidea zena eta erran zion: -Ba ditugu hor bizpahiru ordu, zuek euskaldunok euskara piska bat eman bazenezate, kantu zonbeit edo horrela!-

Benoa, bildu ziren azkaindar horiek elgarrekin, Garreta, Lartzabal, eta idiart,... eta baietz hartuko zutela erantzun zuten. Orduan hasi ziren esketxak egiten. Lartzabal zuten beti erredaktatzailea, kantu zonbeit,... eta igandeetan ere emanaldi berezi bat, eta horrela hasi zen irrati hori, politikarik ez zen uki behar jakina, eta horiek oro han daude bilduak, eta horiek ez ditut nik egin eta bada oraino lana biltzeko horiek, garbian ezartzeko. Eta bestalde artikuluak daude, publikatutako artikuluak, sekulako artikuluak baditu eginak, GORATI batean, KOSTATARRA deiturikoan, ENBATAn, ere bai, editorialak batere firmatu gabekoak askotan eta anitz urtez; HERRIAN ere anitz artikulu ditu. Behin tribunaletarat ere auzitegiatarat deitu zuten, zeren eta Argeliako gerla zela eta argelianoen alde jarri baitzen artikulu batean. Eta orduan Lafitte zuzendaria zenez deitu zuten eta Lartzabalek erran zuen: Lafitte bakarrik ez, ni naiz egin duda hori, nahiz ez zen firmatua. Eta Algeriako gerla bukatu ondoren auzia bere horretan gelditu zen.

Beraz, artikulu horiek ez dira bidluak, HERRIAN egin zituenak. Baina beste asko ere badira. Gero, Donibane Lohizun aldeko apezek bazuten beren artean aldizkari bat, eta une batean Parisen agertu zen, Frantzia guziko parroketan saltzen zen "Vie Catholique aldizkarian artikulu bat kontrabandoan kontra, eta zehazki, Euskal Herriko mugako kontrabando horren kontra. Haserre gorrian gure Lartzabal eta haren lagun zonbeit ere, Murgi izeneko donibandar apez bat, besteren artean; Murgi honek aita kontrabandari erahila guarda batek eta hain zuzen Lartzabalek bere OROITZAPENetan erraten du: "Bazenekite nork lagundu duen hiltzeko unean Murgi apezaren aita hil duen guardaj Nik; Zeren guarda hura bota baitzuten Euskal Herritik, joan zen norabait, baina gero jubilatuta zelarik berriro itzuli zen gizona Euskal Herriat eta Lartzabal deitu zuten azken unean hari emateko azken sakramentuak. Eta hori kondatzen du, nola berak hiltzen lagundu zuen, Murgi bere lagun-minaren aita hil zuen guarda.

P. Urkizu.- Noizko OROITZAPEN horiek?

P. Xarriton.- Udako nahi nuke, Sarako kiburu-egunerako.

P. Urkizu.- Kontrabandistak famatuak dira betidanik eta inportanteak gerla guztietan. Adib., Lezotik pasatzen zen bat nere etxean lo egiten zuena, 1942-43era edo, ni oraindik jaio gabea nintzen, eta Florentino izenekoa, ez dakit entzuna izango duzun,...

P. Xarriton.- Ah! Oso famatua!

P. Urkizu.- Bada, Florentino hau ernaniarra zen, eta honek pasatu zituen mila abiatzaile baino gehiago, aliatuak zirenak (ene amak militarrek deitzen ditu). Gero de Gaullek hamaika medaila ezarri zizkion, baina eskerrak hari pasatu zuten muga eta gero gerlan berriro parte hartzen zuten, joaten ziren muga pasata gero bada, Gibraltarra.

rrera, edo Lisboara eta, gero handik Londresera eta Londresetik beren abioietan alemanen kontra, egiten zuten gerla baina, hori eta beste judu asko ere salbatu ziren kontrabandistei esker bideak ongi ezagutzen zituztelako. Florentino hau oso famatua izan zen.

P. Xarriton.- Nik ez dut ezagutu baina entzun askotan, Florentino Goikoetxea.

* * * * *

Jarraian, horrelako pasarteak kontatuz solasaldiari bukaera eman zitzaion. Eskerrak hizlariari zerbait gehiago ikasi dugu gure antzerkigilerik onenetakoari buruz.

AGUSTINA PONTSTA